




Tantaka

Ikasteko beste modu bat

Egunerokotasunari
aurre egiteko
tresnak ikasten
ditugu!


Proiektu honetako helburua
ikasleak modu integral batean
heztea da etorkizunera begira
bizitza duina izan dezaten eta
gizartearen parte aktibo
bilakatzeko.






Batzuetan beste gela batean egoten gara, TANTAKA gelan. Bertara joaten gara gure ikasketak aurrera eramateko.


Hurrengo diapositibetan zehar azalduko dizuegu zer egiten dugun.





GURE GELA








“NI MUNDUAN”



Oinarrizko ikasketak aurrera eramaten ditugu bakoitzaren garapena eta erritmoa kontuan izanik:

- Hizkuntzarekin lotuta, irakurketa-ulermena, idazkera eta ahozko adierazpena lantzen ditugu, elkarrekintze soziala kontuan harturik.
- Matematika praktikotasunera eramaten dugu, zenbakien identifikazioa, irakurketa eta oinarrizko buruketak, arrazoiketa logikoa landuz.
- Norberak munduan duen presentziaz jabetu gizaki bezala: gizartea, norbera, inguruko elementuak, etab.










KOMUNITATEAREN ERABILPENA

Gizartean, modu autonomo batean, parte-hartze aktiboa sustatzen dugu:


- Gure hiritik mugitzen ikasten ari gara: mugikorrarekin orientatzen, auzo ezberdinak eta bertako leku interesgarrienak ezagutzen...
- Ikastolan beharrezkoak ditugun produktuak edo elikagaiak erosten ditugu: erosi beharrekoak sailkatu, prezioak konparatu, gaitasun sozialak landu...
- Leku batetik bestera mugitzeko baliabideak ezagutzen eta erabiltzen ari gara: tranbia, autobusa eta bizikleta.







ZERBITZUAK



GARBIKETA

Etxeko bizitzan garbiketak duen garrantziaz hausnartu eta egiten ikasi:

- Gure gauzak txukun edukitzen saiatzen gara, bakoitza bere lekuan kokatuaz.
- Ikastolako zein etxeko garbitasunean laguntzen dugu.
- Ardura ezberdinak hartzen ditugu gure egunerokotasunean aplikatzeko helburuz. Zikin dagoela ikustean garbitu behar dela ohartuaz.




KOPISTEGIA


Material eskaera:

- DBH-ko ikaskasleen materiala kudeatzen dugu.
- Emailak landu ditugu eskaera ezberdinak egiteko.
- Ardurak hartu ditugu, irakasleek behar duten materiala eta fotokopien arduradunak gara.
- Hori guztia antolatu eta banatu egiten dugu gure irakasleek ondo lan egin ahal izateko.






TAILERRAK



ORTUA


- Landareek gure bizitzan duten garrantziaz ohartu gara.
- Landareek dituzten atalak eta nola ernaltzen diren ikasi eta ikusi dugu.
- Ortu batek duen prozesua hasieratik amaierara arte bizi izan dugu.
- Jasotako elikagaiak sukaldatzeko erabili izan ditugu. Hala nola, kremak, entsaladak etab



IGERIKETA


- Motrizitatea landuz trebetasun motoreak lantzen ditugu
- Norberaren gorputzaren zaintzan arreta jarri eta beharrak asetseko estrategiak lantzen ditugu
- Ardura ezberdinak hartu behar dituzte modu autonomo batean egitea lortzeko.





PIANOA


- Irakurketa musikala lantzen dugu eta horrekin batera doinuak, erritmoak eta etenaldiak.
- Memoriak ere lanean dihardu.
- Motrizitateaz gain, arreta mantentzeko ahalmena lantzen dugu.




SUKALDARITZA

- Errezetak irakurri, aurrera eraman eta gurea errezetarioa egiten ari gara
- Elikadura osasuntsuaren garrantziaz jabetu
- Osagaiak identifikatu
- Elikagaien agregazio egoerak landu
- Denboraren eta kantitatearen neurriak landu






Horrez gain,



GIZARTEAN PARTE HARTZEN DUGU

Gure ikastolako parte aktiboa gara hainbat ekintzetan parte hartuz.

Ekintza kulturaleri ere garrantzia ematen diegu haien ulermenak eta bizipenak asko irakasten baitigutelako.



KLASEKIDEEKIN

Betidanik elkarlanean aritu gara:

- Kideekin elkarrekintzan eta solasaldian jarraitzen dugu hainbat ikasgaietan.
- Talde ezberdinetan lan egiten dugu.
- Klasetik kanpo jolastokietan ere momentu asko bizitzen ditugu elkarrekin




TANTAKA



TANTAKAKO MATERIALA SALGAI





Egiten dugunaren inguruan gehiago jakin nahi baduzue, jarrai gaitzazue ikastolako webguneko Blog-ean.

<https://www.olabideikastola.eus/eu/bloga>

Egin dezagun ikastola aniztasunago bat!



A cluster of colorful, hand-drawn swirls in shades of green, blue, purple, and orange, located in the top-left corner of the image.

**Eskerrik
asko**

A cluster of colorful, hand-drawn swirls in shades of green, blue, purple, and orange, located in the bottom-right corner of the image.